

Landa-etorkizuna berridazten: proposamenak, mugak eta kontraesanak Euskadiko landa-garapeneko programetan

Juan Cruz Alberdi Collantes

Irakasle titularra, Geografia Saila, Letren Fakultatea (EHU)

Lan honen helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Garapeneko Lege berriak (2022) ezarritako testuinguruan Landa Garapeneko Eskualde Programen azterketa egitea. Metodologia misto baten bidez aztertu dira bai dokumentuen analisia, bai adimen artifizialaren tresnak eta elkarriketa kualitatiboak, eta baita ere plan horien edukiak, prozesuak eta mugak. Emaitzek erakusten dute eskualdeek ikuspegi estrategikoagoa eta proaktiboagoa hartu dutela, jasangarritasuna, kohesio soziala eta berrikuntza ardatz hartuta. Hala ere, diskurtso parte-hartzaile ofizialaren eta egiturazko zurruntasunaren artean tentsioak daude, eta tokiko autonomia mugatua da. Landa Garapen Agenteek funtsezko eginkizuna betetzen dute beren lurraldean duten sustraitzeari esker. Azterketak ondorioztatzen du eskualde-planak tresna baliotsuak direla landa-eremuko etorkizuna berrasmatzeko, betiere parte-hartze erreala, metodologia malguagoa eta eskala anitzeko plangintza sustatzen badira.

GAKO-HITZAK: Landa-garapena · Planifikazio estrategikoa · Gobernantza parte-hartzailea · Trantsizio jasangarria.

Rewriting the Rural Future: Proposals, Limits, and Contradictions in the Rural Development Plans of the Basque Country

This paper analyzes the Local Rural Development Plans of the Basque Country as an expression of the new regulatory framework established by the 2022 Rural Development Law. Through a mixed-methods approach, combining document analysis, artificial intelligence tools, and qualitative interviews, the study examines the content, processes, and limitations of these plans. The findings reveal a significant evolution: the regions have shifted from a logic focused on structural deficiencies to a more proactive, strategic vision oriented toward sustainability, social cohesion, and innovation. However, tensions persist between the participatory discourse and a vertically structured methodology that limits local autonomy. Although institutionally displaced, Rural Development Associations remain key actors due to their territorial embeddedness. The study concludes that Local rural Plans represent an opportunity to rethink rural development, provided that genuine participation, methodological flexibility, and multiscale integration in public planning are strengthened.

KEY WORDS: Rural development · Strategic planning · Participatory governance · Sustainable transition.

<https://doi.org/10.26876/uztaro.6026>

Jasotze-data: 2025-07-09

Onartze-data: 2025-07-30

1. Ikerketaren helburua

Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) landa-inguruneak, Espainiako testuinguru batean, egoera ezberdin batean aurkitzen dira. Han, despokatatzea eta, horrekin batera, desagerpena bada arazo nagusia, EAEan despokatatzea baino larriagoa da egitura sozialaren haustura-arriku erreala. Hiri-inguruneekiko hurbiltasunak eta bide-sarearen hobekuntzak komunitateak ahuldu dituzte: tokiko saltokiak itxi dira, nekazaritza-jarduera eten da, eta auzo eta herriketako bizitza soziala ia desagertu da (Meneko, 2021).

2022ko ekainean onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapenaren Legeak (LGL) egoera horri erantzun nahi dio, landa-eremuaren behar berrietara egokitutako arau-esparru bat ezarriz. Lege berriaren sorrerak agerian uzten du aurreko markoak ez zuela erronka berriei aurre egiteko gaitasunik. Testuinguru horretan, Landa Garapenerako Elkarleen (LGE) rola zalantzan jarri da, eta haien jarraipena eztabaidagai izan da lege berria prestatzean.

Legearen aurreproiektuak elkarte horien aniztasuna kritikatu zuen, eta proposatu zuen haien eginkizunak legeak ezarritako estrategia orokorraren menpe jartzea. Hala ere, azken testuak ez du agintzen haien funtzioetatik bereiztea, tokiko erakundeekin presioari esker, zeinek lortu baitzuten sektoreko erakundeek LGEen eginkizun batzuk mantentzeko konpromisoa hartzea.

Konpromiso horien artean daude Landa Garapenerako Eskualde Planak (LGP) egitea eta gauzatzea. Plan horiek Eusko Jaurlaritzak eskualde bakoitzerako prestatutako Lurralde Garapenerako Planetan jasotako helburuak eta lehentasunezko jardunak zehazten dituzte.

2024 amaieratik hasi dira LGEak eskualde-planak lantzen. Prozesu horien jarraipenak aukera ematen digu tokiko ekimenek beren garapena gidatzeko duten gaitasuna aztertzeko, erakundeak gero eta mendeago diren testuinguru batean.

Ikerketa honek 18 eskualde-planen prestatzea eta emaitzak aztertzen ditu. Landa-eremuak dituen erronka nagusiak identifikatzea eta horiei aurre egiteko proposatutako irtenbideak ezagutzea da ikerketa honen helburu nagusia. Horretarako, galdera hauei erantzutea proposatzen da:

- 1. Erronkei eta jardueriei buruzkoak:** zeintzuk dira gehien errepikatutako arazoak? Eta erronkak? Lurraldeka sailkatzen dira edo orokorrak dira?
- 2. Erronkak identifikatzeko iturriei buruzkoak:** LGPetan jasotako beharrak nork adierazi ditu? Herriarrek parte hartutako diagnostikoetatik datoz, edo administrazioek ezarritako jarraibide orokorren ondorio dira?
- 3. Tokiko garapen-eragileen jarrerari buruzkoak:** Zer ahalmen ematen die lege berriak? Egindako planak, baliagarriak egiten zaizkie eskualdeen eskaera gauzatzeko? Gai al dira garapena bultzatzeko, instituzioen babes gutxiarekin?

Galdera horiek argitzea ikerketaren norabidea zehazteko funtsezkoa da, bai aurrekari teorikoen azterketan, bai metodologian eta emaitzetan. Azterketa plan bakoitzaren irakurketan eta elkarrizketa erdi egituratueta oinarritzen da, balorazioak jasotzeko aukera emanez.

2. Testuingurua

Ikerketaren helburua betetzeko beharrezkoa da, lehenik, testuingurua ondo kokatzea. Horretarako, bi urrats nagusi proposatzen dira: lehena, lege berriak ezartzen duen antolaketa-eredua azaltzea, prozeduran eragina izango duelako, eta bigarrena, aurreko hamarkadetan eskualde-planek jasotako oztopoak eta erronkak aztertzea, egun jaso direnekin alderatzeko aukera emango dutelako.

2.1. Landa Garapeneko Eskualde Planak: landa-politika berrirako giltza

Eusko Legebiltzarrak 2022ko ekainaren 30ean onartutako 7/2022 Landa Garapenaren Legeak inflexio-puntua markatzen du EAEko landa-politikan. 1998ko araudia ordezkatzeko du, eta landa-eremuaren erronka berriei aurre egiteko premia bati erantzuten dio, ikuspegi integratuago, modernoago eta kohesionatuago batetik (Eusko Jaurilaritza, 2021).

Hamarkadetan zehar, EAEko landa-eremuak aldaketa isil baina sakona bizi izan du. Espainiako beste eskualde batzuek baino biztanle gutxiago galdu badute ere, funtzio sozial eta ekonomikoak galtzen joan dira (Bello, 2023). Landagune askok ekoizpengune eta bizigune izateari utzi diote, eta hiri-dinamikaren mendeko eremu bihurtu dira (Meneko, 2021). Eduki ekonomiko, sozial eta kulturala galtzeak lege berri baten beharra bultzatu du.

Aurreko garapen-ereduaren nekea gehitu behar zaio. Eredu horrek tokiko parte-hartzea eta gobernantza partekatua sustatu zituen, baina denborarekin moteldu, zatitu eta askotan eraginkortasunik gabe bilakatu da (Esparcia, 2014; Olarieta, 2017). Politika horiek ez zuten lurraldearen desegituraketa geldiarazten, eta emaitzak mugatuak edo ikusezinak ziren.

Egoera horren aurrean, Eusko Jaurilaritzak norabide estrategikoa aldatu du. Lege berriak eredu zuzentzaileagoa proposatzen du, non erakunde publikoek planifikazioan eta jardunean protagonismo handiagoa hartzen duten (Alberdi, 2023). Helburua argia da: landa-ingurunea biziberritzeko, prozesuak lagundu ez ezik, gidatu ere egin behar dira.

Ikuspegi-aldaketa honek lurraldearen kontzepzio berri bat dakar. Helburua ez da soilik biztanleriaren galera geldiaraztea, baizik eta landa-eremuak EAEko garapen jasangarrian funtsezko rola izatea. Horretarako, planifikazio teknikoagoa, arinagoa eta helburu estrategikoekin lerrotatua proposatzen da.

Legeak ez du soilik esku-hartze publikoaren justifikazioa aldatzen, baizik eta haren egitura eta edukia ere bai. Araudi ausarta da, erakundeen eta landa-lurraldearen

arteko harremana berridazten du, planifikazio estrategiko eta teknikoago baten alde eginez (Alberdi, 2023).

Lege berriaren ezaugarri nagusietako bat planifikazio zentralizatuaren aldeko apustua da. Eusko Jaurlaritzak eta HAZI fundazio publikoak gidaritza hartzen dute. Aurreko ereduaren tokiko eragileek erabakiak hartzeko pisu handia zuten, orain eraginkortasuna eta koherentzia lehenesten dira. Parte-hartze lokala mantentzen da, baina logika bertikal baten menpe.

Eredu hau tresna zehatzetan gauzatzen da, eta horien artean LGPak nabarmentzen dira. Plan horiek euskal landa-politikaren ardatz bihurtzen dira. Ez dira orientazio-dokumentu hutsak, baizik eta planifikazio- eta gauzatze-tresna eraginkorrak. Diagnostiko teknikoetan oinarrituta egiten dira, baina diseinua eta onespina HAZIren eta Eusko Jaurlaritzaren esku daude, tokiko eragileen eragina mugatuz (Alberdi, 2023).

Legearen edukiek lurraldean erabakitazunez jarduteko borondatea erakusten dute. Norabide politikoa, planifikazio estrategikoa eta ekintza publikoa dira aldaketaren motor nagusiak. Hala ere, ikuspegi honek galderak sortzen ditu: nola uztartu eraginkortasuna eta parte-hartzea? Nola orekatzen dira teknizismoa eta demokrazia lokala? (Esparcia, 2020).

Estrategia berriaren muinean eskualde-planak daude, lurralde-planifikaziorako tresna nagusi gisa. Plan horiek zehaztu behar dute zer egingo den, non, nola eta zer baliabiderek. Legearen lurraldean gauzatzeko modua dira. Diagnostiko sozioekonomiko, ingurumeneko eta demografikoetan oinarritzen badira ere, prozesua HAZIk gidatzen du eta azken onespina Eusko Jaurlaritzak ematen du. Tokiko ekarpenak jasotzen badira ere, prozesuaren norabidea eta kontrola zentralizatuta daude.

Eredu honek eraginkortasuna bilatzen du: azkar jardutea, blokeoak saihestea eta gobernuaren helburu estrategikoekin bat egitea. Hala ere, tentsioak sortu ditu. Landa-eremuk hainbat eragilek kezka adierazi dute tokiko komunitateek protagonismoa galtzen dutelako (Alberdi, 2023).

Laburbilduz, eskualde-planek eredu berriaren indarguneak eta kontraesanak islatzen dituzte. Alde batetik, lurraldean modu koherente eta eraginkorrean jarduteko aukera ematen dute. Bestetik, zalantzak sortzen dituzte prozesuaren kalitate demokratikoari eta landa-biztanleriaren erabakietan eragiteko gaitasunari buruz (Camarero & Oliva, 2019).

Euskal landa-politikaren norabide-aldaketa honek galdera nagusi bat uzten du airean: gai izango al da formula berria landa-eremua biziberritzeko, bertan bizi direnengandik urrundu gabe?

2.2. Azken hamarkadetan EAEko eskualdeetan errepikatu diren oztopo eta erronka nagusiak

XX. mendearen amaieran, EAEk landa-garapenaren ikuspegia sakonki berritzeko prozesua abiatu zuen. Aldaketa hori ez zen soilik instituzionala izan, baizik eta kulturala eta estrategikoa ere bai. 1998ko Landa Garapenaren Legearen onarpenak aro berri bati eman zion hasiera: landa-eremua ez zen jada nekazaritzarako espazio huts gisa ulertzen, baizik eta funtzio anitzeko lurralde gisa, non bizi-kalitateak, jasangarritasunak eta tokiko nortasunak garrantzi berezia hartzen zuten (Alberdi, 2016).

Testuinguru berri horretan, LGEak eragile nagusi bihurtu ziren, tokiko parte-hartzean, lankidetzan eta planifikazio estrategikoan oinarritutako gobernantza-eredu bat eraikiz. Europar Batasuneko LEADER ikuspegian oinarrituta, LGEek ikuspegi partekatua eraiki zuten: ekonomia dibertsifikatzea, ondare naturala eta kulturala balioan jartzea, azpiegiturak eta zerbitzuak hobetzea eta gobernantza parte-hartzailea sustatzea (Izquierdo Ramírez, 2007).

Estrategia bateratu hori ez zen goitik behera ezarri, baizik eta lurraldearen etorkizuna aldaketa sozial, ekonomiko eta ingurumenekoetara egokitzeko gaitasunean zegoela ulertzetik sortu zen. Ereduaren indargune nagusia, ordea, eskualde bakoitzaren berezitasunetara egokitzeko gaitasunean zetzan. LGE bakoitzak printzipio orokorrak bere lurraldearen ezaugarrien arabera moldatu zituen (Galdós eta Ruiz, 2016).

1. taula. Landa-garapenaren oztopo nagusiak.

Oztopo mota	Deskribapen ohikoena
Demografikoa	Zahartzea, jaiotza-tasa baxua eta biztanleriaren galera progresiboa.
Zerbitzuetarako sarbidea	Garraio publiko, osasun, hezkuntza eta konektibitate digital eskasak.
Egitura ekonomikoa	Sektore tradizionalen mendekotasuna eta dibertsifikazio urria.
Lurraldearen zatiketa	Landagune sakabanatuak, kudeaketa eta zerbitzuen eskaintza zailtzen dutenak.
Belaunaldi-erreleborik eza	Gazteen parte-hartze eskasa lehen sektorean eta landa-bizitzan.
Ekintzailatza ahula	Berrikuntza gutxi eta enpresa berrien sorrera mugatua.
Azpiegitura zaharkituak	Nekazaritza, industria eta mugikortasuneko azpiegitura eskasak.

Iturria: Eusko Jaurlaritza (2015). Egilearen lanketa.

2. taula. Identifikatutako joerak eta erronka berdintsuak.

Joera edo erronka	Deskribapena
Klima-aldaketa	Nekazaritza eta basogintzaren egokitzapena muturreko fenomenoei eta jasangarritasunari.
Digitalizazioa	Zerbitzuen hobekuntza, prestakuntza eta lehiakortasuna, nahiz eta arrakalak mantendu.
Turismo jasangarria	Hazteko aukera, baina arautzea eta planifikazioa beharrezkoak.
Ekonomia zirkularra eta berdea	Ekoizpen-eredu jasangarri eta ingurumen-inpaktu txikikoen sustapena.
Ekonomia dibertsifikatzea	Sektore berrien sustapena: agroindustria, energia berriztagarriak, landa-zerbitzuak.
Herriarren parte-hartzea	Tokiko biztanleen inplikazio handiagoa erabakietan.
Genero- eta gazte-berdintasuna	Emakume eta gazteentzako politika aktiboen integrazioa.

Iturria: Eusko Jaurlaritza (2015). Egilearen lanketa.

Lurralde-egokitzapen hori agerian geratzen da Eskualdeko Landa Garapen Planen diagnostiko estrategikoetan. Bertan, antzeko erronkak eta tokiko berezitasunak identifikatu ziren. Erronka partekatuen artean: biztanleriaren zahartzea, gazteen despopulazioa, tokiko ehun ekonomikoaren ahultasuna eta ekoizpenaren dibertsifikazio eskasa. Halaber, oinarritzko zerbitzuetarako sarbidea eta konektibitate digitalaren gabeziak kezka-iturri bezala aipatu ziren (Eusko Jaurlaritza, 2015).

Eskualde bakoitzaren berezitasunek landa-eremuaren aniztasuna eta konplexutasuna erakusten zuten. Arabako Mendialdean eta Arabako Haranetan, isolamenduak eta ahultasun demografikoak premiazko neurriak eskatzen zituzten: biztanleria erakartzea eta zerbitzuak hobetzea. Arabako Errioxan, ardogintzaren dinamismoak ekonomia dibertsifikatzeko eta jasangarritasunera bideratzeko erronka planteatzen zuen. Goierri eta Debagoienean, industria-ingurunearen eta landa-ingurunearen arteko loturak lantzea eskatzen zuen, eta abar (Eusko Jaurlaritza, 2015).

Eskualde bakoitza bere baliabide, behar eta aukeretara egokitutako berezko estrategiak garatzen joan da, bost urteko planak berritzen. Oro har, landa-garapenaren eredia egokitzeko eta egoera berrietara moldatzeko gaitasun handia erakutsi dute. Eskualde gehienak 80ko hamarkadaren bukaeran eratu ziren eta hiru hamarka ondoren funtzionamenduan jarraitzen dute, instituzioetatik proposatutako aldaketei aurre eginez.

Landa Garapenaren Lege berriarekin irekitako etapak ez luke aurrekoarekin haustura bat izan behar, baizik eta erronka berrietara egokitzeko fase berri bat. Eskualde-planetan jasoko diren edukiak aurreko planetan identifikatutako erronken

jarraipena izango dira neurri handi batean, eta eskualde-erakundeek egoera berrietara egokitzeko duten gaitasuna aztertzeo aukera emango dute.

3. Erabilitako metodologia

EAEko landa-eskualdeek dituzten erronka nagusiak eta proposatutako irtenbi-deak ulertzea da lanaren helburua. Xede horri erantzuteko, ikerketa-metodo anitzetan oinarritzen da ikerkuntza, helburua lortzera egokitutako zenbait iturri eta praktika erabiliz. Emaitzak bi iturri nagusiren inguruan antolatu dira:

- Literatura zientifikoaren azterketa: antzeko ekimenak aztertzen dituzten artikulua eta lan akademikoak ezinbestekoak izan dira erreferentzia-esparrua finkatzeko. Berezikiki interesgarria da EAEko eredia aztertu duten lanak.
- LGEren eta garapen-eragileen barne-dokumentazioa: sarean eskuratutako informazioa, barne-txostenak eta aurkezpenak aztertu dira. Oro har, ez dira argitaratutako materialak, baizik eta ekimenaren kudeaketarako sortutako dokumentuak. Bi dokumentu nabarmendu dira:
 - HAZIK proposatutako LGPak egiteko metodologia-eredua. Plan guztiek eredu berari jarraitu behar diote eta horrek programen elaborazioa eta edukiak, neurri handi batean, ardaztu egiten ditu.
 - 2025-2027ko eskualde-planetan jasotako ardatz estrategikoak, azpiar-datzak eta jarduera-lerroak, eskualdeka antolatuak.

Emaitzak bi azpiataletan banatu dira (eredua eta ekintzak), eta horietan erabilitako prozedura antzekoa izan da. Iturrietan, batez ere ez argitaratuetan, oinarritutako informazioa lehenik aztertu da. Ondoren, adimen artifizialeko tresnak erabili dira lehen azterketa egiteko (ideia nagusien laburpena, kontaketak, joeren bilakaera). Emaiza horiek, askotan osatugabeak edo zehaztugabeak izanik, ikertzaileak berrikusi eta egiaztatu ditu. Ondoren konparaketak egin dira, batez ere argitaratutako lan zientifikoaren edukien eta emaitzen artean, eta ondorioak jaso.

Hala ere, ondorio horiek ez dira nahikotzat jotzen beste metodo batzuekin kontrastatu gabe. Adimen artifizialak eta ikertzailearen egiaztapen-lanak ez dute interpretazio guztien bermea ematen. Gizarte-zientzietan, interpretazioa funtsezkoa denez, beste ikuspegi batzuk behar dira ondorioak egiaztatzeo (Moreno Espinosa *et al.*, 2024). Lan hori «Eztabaida» atalean garatzen da, non emaitzak berrikusi eta osatzen diren.

Gizarte-zientzietan, inplikaturako pertsonen iritzia jasotzea funtsezkoa da, eta ikerketa honetan hainbat une metodologiko uztartzea erabaki dugu:

- Datuen azterketa eta lehendabiziko ondorioak lortu ondoren, LGEetako gerenteekin bilera sorta bat formalizatu da, lortutako emaitzak partekatzeko eta haien ikuspegiarekin alderatzeko helburuarekin.
- Lehen kontaktua online bilera baten bidez egin da gerente bakoitzarekin. Bertan, emaitzak azaldu eta ikerketaren baliozkotzea ahalbidetuko duten

gaiak planteatu zaizkie. Une horretan bertan lehen ondorioak agertzen hasten dira, eta parte-hartzaileak etorkizuneko dinamikan murgiltzen dira (Askasibar eta Flores, 2013).

- Elkarrizketa informal eta egituratu gabea erabiltzea erabaki da, konfiantza eta urteetan zehar eskuratutako ezagutza sakonean oinarrituta. Hurbilketa hau ohiko praktika batean oinarritzen da: informazioa partekatzea eta iritziak eskatzea (Bonilla *et al.*, 2023). Euskal Autonomia Erkidegoko LGEetako 18 gerentetik 6ri egin zaie interpelazioa. 2025eko ekainean egindako elkarrizketak lau atal nagusitan egituratu dira: tokiko entitateen parte-hartzea, lortutako emaitzak, proposatutako esku-hartzearen eskema eta LGLren esku-hartzearen ereduarekiko iritzia.
- Azkenik, elkarrekin hausnarketa bat antolatu da LGEetako teknikariekin, banaka adierazitako inpresioak kontrastatzeko eta ikuspegi partekatu batera iristeko. Elkarrekin batera lan egiteko dinamika batean abiatuta daude azken urteetan eta era honetako kontsultak ez zaizkie arrotz egiten (Alberdi, 2022). Are gehiago, egindako kontrasteak pausoak emateko beharra agerian uzten du eta, nahiz eta ikerkuntza honen helburua ez izan, konpartitzen dituzten gaien artean pauso bateratuak ematea erabaki dute: gizarte-arloan, elikaduraren inguruan, erreleboaren gaian eta abar.

EHUko Geografia Sailaren eta LGEen arteko lankidetzak luzeak —hamarkadak hartzen dituen harremana— ulermen- eta konfiantza-giro egokia eskaintzen du, eta horiek funtsezkoak dira horrelako ikerkuntza baten arrakastarako (OTRI kodea: 2006.003)

4. Emaitzak

4.1. EAEko eskualde landatarren lehentasunak

Eskualde-planak landa-eremuen garapen jasangarria bultzatzeko tresna nagusiak dira. Parte-hartzean oinarritutako ikuspegi baten bidez, eskualde bakoitzak lehentasunak hautatzen ditu eta bere errealitatera egokitutako ekintza zehatzak definitzen ditu. Plan hauek bi osagai uztartzen dituzte: legeak ezarritako ardatz orokorrak eta tokiko proposamenak. Horrela, lurralde guztiek partekatzen dituzten behar orokorrak islatzeaz gain, eskualde bakoitzaren berezitasunak ere agerian uzten dituzte.

4.1.1. Kohesio soziala, zerbitzuak, etxebizitza eta nekazaritza: LGPen ardatz nagusiak

Atal honek LGPetan errepikatzen diren azpi ardatz ohikoenak jasotzen ditu, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako eskualde landatarrek partekatzen dituzten lehentasunak nabarmenduz. Eskualde bakoitzak bere ñabardurak baditu ere, azterketak ikuspegi partekatu bat erakusten du EAEko landa-eremuaren erronka nagusien inguruan.

1. **Belaunaldi-erreleboa eta sustraitzea.** Eskualde guztiek kezka bera dute: gazte gutxi bizi dira landa-eremuan. Nekazaritza eta abeltzaintza bezalako jardueretan gazteen parte-hartzea errazteko neurriak proposatzen dira, ekoizpen-sarearen jarraipena bermatzeko.
2. **Kohesio soziala eta zaintza-sareak.** Garapen ekonomikoaz harago, gizarte-sarea sendotzea lehenesten da, adinekoen ongizatea, biztanle berrien integrazioa eta komunitate-sareen sorrera sustatuz.
3. **Etxebizitza eta oinarrizko zerbitzuak.** Etxebizitza eskuragarriaren eta zerbitzu egokien (garraioa, energia, gizarte-arreta eta abar) gabeziak oztopo dira biztanleria finkatzeko. Eskualdeek landa-errealitatera egokitutako irtenbideak eskatzen dituzte.
4. **Tokiko produktuen sustapena.** Hurbileko produktuak bultzatzea ez da soilik ekonomia indartzeko, baizik eta lurralde-nortasuna sendotzeko eta kontsumo jasangarriagoa sustatzeko bidea ere bada.
5. **Trantsizio energetikoa eta jasangarritasuna.** Eskualdeek trantsizio ekologikoan parte hartu nahi dute, energia berriztagarriak eta baliabideen kudeaketa arduratsua sustatuz, betiere ingurunea errespetatuz eta burujabetzaren ikuspegitik.
6. **Araudia egokitzea.** Landa-eremuen berezitasunei erantzuteko malgutasun handiagoa eskatzen da, baserri zaharren birgaitzetik bizikidetza-eredu berrietara edo ekintzailatza-forma berrietaraino.
7. **Planifikazio estrategikoa.** Lurraldea antolatzeko eta etorkizuneko beharrei aurrea hartzeko tresna gisa ulertzen da. Eskualdeek beren estrategia propioak diseinatzeko gaitasuna aldarrikatzen dute.
8. **Turismo jasangarria.** Turismoa aukera gisa ikusten da, baina erronka ere bada. Ingurumena errespetatzen duten, balio lokalak sortzen dituzten eta baliabideen saturazioa saihesten duten ereduak lehenesten dira.

3. taula. EAEn gehien errepikatzen diren 15 azpiardatzak.

Zk.	Azpiardatza	Errepikapen kopurua
1	Tokiko produktuen sustapena eta merkaturatzea	32
2	Kohesio soziala eta gizarte-arreta	28
3	Belaunaldi-erleleboa eta gazteen integrazioa	24
4	Gizarte-arretaren planifikazioa	23
5	Garraio eta mugikortasunaren planifikazioa	19
6	Araudia egokitzea	19
7	Etxebizitzaren planifikazioa	18
8	Energia berriztagarrien planifikazioa	17
9	Turismoaren planifikazioa	17
10	Baso-planifikazioa	17
11	Elikadura-katearen planifikazioa	16
12	Lankidetzat eta elkarlana	14
13	Elikadura-kateko azpiegiturak eta ekipamenduak	13
14	Energia berriztagarrietan laguntza eta aholkularitza	12
15	Nekazaritza-jarduera jasangarriaren kudeaketa	12

Iturria: HAZI (2025). Egilearen lanketa.

Lurraldeen ikuspegi bereiziak

- **Araba.** Pertsonen ongizatearekiko sentsibiltate handia erakusten du. Gizarte-arreta eta komunitate-kohesioa lehenesten dira, batez ere adinekoentzat eta kolektibo ahulentzat. Nekazaritza-jarduera jasangarriaren aldeko konpromisoa eta kontzejuen bidezko parte-hartze kultura sendoa nabarmentzen dira.
- **Bizkaia.** Ikuspegi teknikoagoa eta hazkunde ekonomikoan oinarritua du. Turismo planifikatua, araudia egokitzeko beharra eta berrikuntzaren presentzia azpiardatz nagusi gisa agertzen dira. Estrategia modernizazioan, malgutasun juridikoan eta baliabide lokalak balioan jartzean oinarritzen da.
- **Gipuzkoa.** Tokiko produktuen sustapena, kohesio soziala eta kalitatezko enplegua ardatz estrategiko gisa nabarmentzen dira. Elikaduraren rola ekonomia-, gizarte- eta kultura-mailan indartzen du.
- **EAEko LGPe**ko koherentzia handia erakusten dute lurralde osoan zehar, lehenetsun estrategikoen inguruan. Belaunaldi-erleleboa, kohesio soziala, etxebizitza, araudiaren egokitzapena, planifikazioa, tokiko elikadura eta jasangarritasuna dira landa-garapenaren eredu osatzen duten zutabe nagusiak. Eredu honek ez du hiri-eredua kopiatu nahi, baizik eta lurraldean errotutako alternatiba bideragarri bat eraiki.

4.1.2. Azpiardatzekin bat datozen jarduera-lerro zehatzagoak

EAEko Eskualdeko Landa Garapen Planek ikuspegi estrategiko partekatua dute, eta hori jarduera-lerro komunetan islatzen da. Lerro horiek erakusten dute konpromiso kolektiboa dagoela jasangarritasunarekin, kohesio sozialarekin, berrikuntzarekin eta landa-ingurunearen garapen ekonomikoarekin.

- 1. Eredu jasangarriagoetarako trantsizioa.** Politika publikoetan eraldaketa sakona bultzatzen da, ingurumenaren jasangarritasuna, gizarte-ekintza eta lurralde-erresilientzia ardatz hartuta. Garapenaren eta ingurunearekiko errespetuaren arteko oreka bilatzen da.
- 2. Helburudun turismoa.** Turismo jasangarria eta birsortzailea aukera gisa ikusten da, lurraldea dinamizatzeko, baina haren esentzia galdu gabe. Eredu batek bisitariak eta biztanleak aberastea bilatzen du, balio lokalak sortuz eta nortasun kulturala indartuz.
- 3. Landa-ingurunea bizitzeko modu berriak.** Etxebizitza eskuragarria eta bizikidetzaz-eredu berritzaileak funtsezko tresna bihurtzen dira gazteak eta biztanle berriak sustraitzeko. Irtenbide berriak bilatzen dira: babes ofizialeko etxeak, baserria zatitu gazteak bertan bizitzeko...
- 4. Energia, guztion ondasun gisa.** Autokontsumoa eta energia-komunitateak sustatuz, trantsizio energetiko parte-hartzailea bultzatzen da. Energia garbia tokian bertan ekoiztea bilatzen da, lankidetzazko ikuspegi batekin.
- 5. Baso bizi eta jasangarriak.** Basoen kudeaketa berriz baloratzen da, erronka berrietara egokitutako praktika tradizionalak berreskuratuz. Basoa lurraldearen orekarako funtsezko espazio ekologiko, kultural eta bizigarri gisa ulertzen da.
- 6. Enplegua eta ekintzaitza bultzatzea.** Proiektu bideragarriak garatzeko ekosistema egokia sortzea bilatzen da, zerbitzuen koordinazioaren eta laguntza-programen bidez. Helburua da lan- eta enpresa-aukera berriak sortzea landa-ingurunean.
- 7. Gizarte-sare sendo eta inklusiboa.** Kohesio soziala indartzen da integrazioa, bizikidetzaz eta herritarren dinamismoa sustatzen duten ekimenen bidez. Herri biziak, solidarioak eta aniztasunari irekiak eraiki nahi dira.

Lurraldeen ikuspegi bereziak

- **Araba.** Pertsonengan eta ingurunean oinarritutako garapen-eredua lehenesten du. Lehenetsiak dira: zaintza komunitarioa, agroekologia jasangarria eta herritarren parte-hartze aktiboa.
- **Bizkaia.** Berrikuntza eta lehiakortasunaren aldeko estrategia du, tokiko produktuen eta ondarearen balioa galdu gabe.
- **Gipuzkoa.** Garapen landatarraren ikuspegi etiko eta komunitarioa du, jasangarritasunarekin eta kohesio sozialarekin konpromiso sendoa erakutsiz.

4. taula. Azpiardatzen eta jarduera-lerroen arteko loturak.

Azpiardatza	Jarduera-lerroa	Oharrak
Belaunaldi-erleleboa eta sustraitzea	Landa-ingurunea bizitzeko modu berriak.	Gazteak erakartzea eta finkatzea helburu dute biek.
Kohesio soziala eta zaintza komunitarioa	Gizarte-sare sendo eta inklusiboa.	Ongizate komunitarioa eta inklusioa lehenesten dituzte.
Etxebizitza eta oinarritzko zerbitzuak	Etxebizitza eskuragarriko estrategia.	Etxebizitzarako eta zerbitzuetarako sarbidearen kezka errepikatzen da.
Trantsizio energetikoa eta jasangarritasuna	Energia, guztion ondasun gisa.	Energia berriztagarriak eta tokiko parte-hartzea sustatzen dituzte.
Basoen kudeaketa jasangarria	Baso bizi eta jasangarriak.	Basoa baliabide ekologiko eta kultural gisa baloratzen dute.
Enplegua eta ekintzailtza	Enplegua eta ekintzailtza bultzatzea.	Landa-ekonomia biziberritzeko beharra azpimarratzen dute.
Turismo jasangarria	Helburudun turismoa.	Turismo-eredu jasangarri eta birsortzailea lehenesten dute.
Araudia egokitzea	Administrazioaren sinplifikazioa.	Oztopo legalak salatzen dituzte eta esparru malguagoak eskatzen dituzte.

Iturria: Egilearen lanketa.

Jarduera-lerroek azpiardatzetan jasotako kezka berberak jasotzen dituzte, eta horiek ekintza zehatz bihurtzen dituzte. Askotan, hizkera operatiboagoa erabiltzen dute, baina gai nagusietatik aldendu gabe. Adibidez, etxebizitzari buruzko azpiardatza «etxebizitza eskuragarriko estrategia» bihurtzen da; energiaren inguruko kezka «autokontsumoa eta energia-komunitateak», eta kohesio soziala «inklusioko eta herritarren dinamismoa» sustatzen duten ekimen bihurtzen dira.

Errepikapen hori ez da hutsune bat, baizik eta planifikazio-prozesuaren heldutasunaren adierazle. Eskualdeek ez dituzte soilik erronkak ondo identifikatzen, baizik eta haiei nola erantzun ere badakite. Diagnostikoaren eta ekintzaren arteko lerrokadura hori barne-koherentziaren seinale da.

4.1.3. Oinarritzotik estrategikora: lehentasunen bilakaera EAEko landa-eremuan

Aurreko legeari lotutako programetan, eskaerak batez ere, egitura-gabeziak estaltzera bideratuta zeuden: oinarritzko azpiegiturak hobetzea, osasun- edo hezkuntza-zerbitzuetarako sarbidea bermatzea edo despopulazioa geldiaraztea (Alberdi, 2004; 2010; 2016). Gaur egungo planek, ordea, landa-eremu askoz proaktiboago, estrategikoago eta etorkizunera begirakoago bat erakusten dute.

Oinarritzotik estrategikora igarotzeak ez du esan nahi eskaera tradizionalak desagertu direnik, etxebizitzarako sarbidea edo garraio publikoa oraindik presente daude. Bai, ordea, orain ikuspegi zabalago, integratuago eta anbiziotsuago batean kokatzen direla. Hasierako planean, eskaerak egitura-desoreka zuzentzeko premian oinarritzen ziren: garraio publikoa, osasun-arreta, hezkuntza- edo etxebizitza-zerbitzuetarako sarbidea bermatzea, eta despopulazio- eta zahartze-prozesuak geldiaraztea, landa-eremu askoren bideragarritasuna arriskuan jartzen baitzuten (Alberdi, 2004). Logika erreaktiboa zen: gabezia argiei erantzutea, bizitza-baldintzak hiri-inguruneekin parekatzeko.

Aitzitik, egungo planek logika proaktibo eta eraldatzaileagoa hartzen dute. Eskualdeek ez dute soilik falta dutena adierazten, baizik eta proposamen estrategikoak egiten dituzte, dimentsio sozialak, ekonomikoak, ingurumenekoak eta kulturalak integratuz. Adibidez, «etxebizitza-eskaera» ez da jada lurzoru- edo birgaitze-beharraren arabera adierazten, baizik eta «bizitzeko modu berrien» estrategia zabalago baten barruan: bizikidetza partekatua, belaunaldi arteko etxebizitzak edo landa-mugikortasunera egokitutako irtenbideak.

Gaur egungo eskaeren artean, lehen programetan ia agertzen ez ziren kontzeptuak indar handiz agertzen dira:

- **Belaunaldi-erreleboa.** 90eko hamarkadan kezka bat bazen ere, gaur egun sakonago lantzen da, gazteen landa-eremurako itzulera enplegu-, prestakuntza-, etxebizitza- eta ekintzailatza-politikekin lotuz.
- **Kohesio soziala eta zaintza.** Adinekoen arreta, biztanle berrien integrazioa eta zaintza-sare komunitarioen sorrera ardatz nagusi bihurtu dira, batez ere Araban eta Gipuzkoan.
- **Trantsizio energetikoa.** Energia-komunitateak, autokontsumoa, energia-burujabetza eta gisa horretako kontzeptuak berriak dira, eta landa-eremua jasangarritasun globaleko helburuekin lerrokatzen dutela erakusten dute.
- **Araudia egokitzea.** Eskualdeek lege-esparru malguagoak eskatzen dituzte: baserriak birgaitzeko, bizikidetza-eredu berriak sustatzeko edo landa-ekintzailatza errazteko. Gaur egungo LGPetan zeharka agertzen den eskaera hau ia ez zen agertzen lehenengo planean.
- **Planifikazio estrategikoa.** «Planifikazioa» hitza sistematikoki agertzen da egungo azpiardatzetan: etxebizitza, turismoa, gizarte-arreta, mugikortasuna, energia berriztagarriak... Hori tokiko gobernantza eta erabakiak hartzeko autonomia-nahiaren isla da.
- **Jasangarritasuna eta tokiko elikadura.** Elikadura-katearen balioa, zirkuitu laburrak, agroekologia eta elikadura-burujabetza diskurtso landatarraren zutabe bihurtu dira, bereziki Gipuzkoan.

5. taula. Eskaeren konparazioa: lehen eta orain.

Gai nagusia	Eskaerak (1998-2007)	Eskaerak (2025)
Demografia	Zahartzea eta gazteen falta.	Belaunaldi-erleboia, enplegu- eta etxebizitza-politikekin lotuta.
Oinarrizko zerbitzuak	Garraioa, osasuna, hezkuntza, etxebizitza.	Zaintza, mugikortasun eta etxebizitza eskuragarriko planifikazioa.
Lehen sektorea	Dibertsifikazioa eta agroindustria.	Jasangarritasuna, agroekologia eta elikadura-burujabetza.
Azpiegiturak	Bideak, telekomunikazioak, lurzoru industrialak.	Digitalizazioa, energia garbia eta mugikortasun elektrikoa.
Turismoa	Turismo landatarraren sustapena.	Turismo jasangarria, kultura eta tokiko produktuekin lotuta.
Araudia	Hiri-ikuspegitik sortutako zurruntasuna.	Araudi malguagoa, etxebizitza eta ekintzaitza errazteko.
Parte-hartzea	Tokiko inplikazio eskasa.	Gobernantza eta herritarren parte-hartze aktiboa.
Berrikuntza	Presentzia mugatua.	I+G, digitalizazioa eta berrikuntza soziala.
Jasangarritasuna	Aipamen puntualak.	Ardatz zeharkakoa: energia, ekonomia zirkularra, mugikortasuna.

Iturria: Egilearen lanketa.

Laburbilduz, EAEko landa-planek erakusten dute komunitateek ez dituztela soilik beren gabeziak identifikatzen. Gero eta gaitasun handiagoa dute beren etorkizuna modu estrategikoan irudikatzeko eta bideratzeko. Diagnostikoaren eta ekintzaren arteko koherentzia hori, eta ikuspegi integratuago eta eraldatzailago bat hartzea, landa-politiken heldutasunaren adierazle argia da.

LGPen azken zikloan gertatu den aldaketa nabarmenetako bat da landa-eremuko eskaera tradizionalak gainditzen dituzten sentsibiltate berrien agerpena. Sentsibiltate horiek ez dute soilik kezken esparrua zabaltzen, baizik eta landa-garapenaren esanahia bera berridazten dute, ikuspegi etiko, kultural eta ekologiko sakonago batetik.

- **Garapen landatarra ikuspegi etiko eta komunitarioarekin.** Garapenak ez du soilik bideragarri ekonomikoa izan behar, baizik eta bidezkoa eta inklusiboa ere bai (Freidenberg, 2000). Genero-berdintasuna, irisgarritasuna, kolektibo ahulen arreta edo osasun eta ongizatearen planifikazioa azpiardatzek dimentsio etiko berri bat erakusten dute.
- **Energia, guztion ondasun gisa.** Azpiegiturak instalatzeaz harago, gaur egungo LGPe energia ekoizteko eta kontsumitzeko eredu parte-

hartzailleak sustatzen dituzte: autokontsumoa, energia-komunitateak eta burujabetza energetikoa. Energia baliabide estrategikoa izateaz gain, tokiko ahaldunderako tresna bihurtzen da.

- **Landa-ingurunea bizitzeko modu berriak.** Etxebizitza ez da jada sarbide-edo birgaitze-arazo hutsa. Gaur egun, berrikuntza sozialaren ardatz bihurtu da: belaunaldi arteko bizikidetzak, etxebizitza kolaboratiboak edo landa-mugikortasunera egokitutako irtenbideak aztertzen dira.
- **Kultura, nortasuna eta elikadura ardatz egituratzailerik gisa.** Tokiko elikadura, zirkuitu laburrak, elikadura-burujabetza eta kilometro zero produktuen sustapena landa-eredu berriaren zutabe bihurtu dira. Dimentsio ekonomikoaz harago, estrategia hauek nortasun kulturala, herritarren osasuna eta ingurumenaren jasangarritasuna indartzen dituzte.
- **Tokiko gobernantza eta herritarren parte-hartzea.** Planifikazio estrategikoa, herritarren parte-hartze aktiboa eta eragile publikoen eta pribatuaren arteko lankidetzak funtsezko elementuak dira ikuspegi berrian (Schejtman eta Berdegué, 2016). Eskualdeek ez dituzte soilik politikak gauzatu nahi, baizik eta haiek diseinatu, ebaluatu eta beren errealitateak egokitu.

EAEko landa-garapena ez da jada politika konpentsatzaile bat, baizik eta politika eraldatzaile bat. Norabide-aldaketa honek ez du soilik esku-hartzearen eraginkortasuna hobetzen, baizik eta autoestimua, lurralde-nortasuna eta erabaki politikoen zilegitasun demokratikoa ere indartzen ditu. Landa-eremua ez da soilik garatu beharreko espazio bat, baizik eta herrialde osoaren garapenean aktiboki parte hartzen duen eragile bat.

4.2. Zer neurritan erabakitzen dute eskualdeek? LGPen elaborazio-prozesuaren azterketa kritikoa

Eredu parte-hartzaile gisa aurkezten bada ere, eskualdeek benetan aukera duten beren lehentasunak definitzeko egiaztatzea da atal honen helburua. Azterketaren xedea da ikuspegi parte-hartzailearen indarguneak eta mugak identifikatzea eta benetakotasuna zein eraginkortasuna indartzeko hobekuntzak proposatzea.

4.2.1. LGPen elaborazioa: eskualde guztientzako eredu bat

LGPen elaborazioa lurralde-plangintzaren zikloko fase estrategikoa da. Prozesu honek ez du soilik eskualde bakoitzeko landa-garapenearen norabidea zehazten, baizik eta analisi teknikoa, herritarren parte-hartzea eta emaitzetara bideratutako ikuspegia uztartzen dituen metodologia artikulatzen du.

LGPak LGLren baitan kokatzen dira, eta lege horrek eskualde bakoitzak bere programa propioa izan behar duela ezartzen du, baina LGPei esaten dutenarekin koherentzia. Araudi horrek esparru bat eskaintzeaz gain, lurralde-aniztasuna aitortzen du eta tokiko egokitzapena sustatzen du estrategia partekatutako barruan. Helburu nagusia bikoitza da: alde batetik, lurraldeen arteko koherentzia eta alderagarritasuna bermatzea; bestetik, eskualde bakoitzak bere garapen

integralerako bidea marraztu ahal izatea, bere indarguneetan eta eragileen inplikazioan oinarrituta (Alberdi, 2023).

LGPen metodologiak, Eusko Jaurlaritzaren arabera, behetik gorako (Bottom-up) ikuspegia hartzen du, plangintza tokiko ezagutzatik abiatzen da eta modu lankidetsuan eraikitzen da. Eredu hau LEADER ikuspegiaren inspiratuta dago, Europan 1990eko hamarkadatik zabaldua, eta landa-garapen endogenoa zein sektore anitzeko parte-hartzea ditu oinarri (Navarro, Woods & Cejudo, 2016).

LGPen elaborazioa gidatzen duen esparru metodologikoa HAZI Fundazioak diseinatu du, eta Nekazaritza, Elikadura eta Landa Garapenerako Politikaren Batzordeak onartu du. Hala ere, esparru hau ez dute eredu itxiaz ulertzen, baizik eta malgutasunerako aukera irekitzen duen gida bat bezala. Eskualde bakoitzak edukiak, ikuspegia eta tresnak egokitu ditzake bere gizarte-, ekonomia-, erakunde- eta kultura-ezaugarrien arabera. Malgutasun hori hainbat mailatan gauzatzen da (HAZI, 2024):

- **Tokiko ikuspegidun diagnostikoa.** Egitura berdinari jarraitzen bazaio ere, eskualde bakoitzak bere egoeraren analisi propioa egiten du, datu lokalak, elkarrizketak eta dinamika parte-hartzaileak integratuz. Horrek ahalbidetzen du diagnostikoak lurraldearen nortasuna eta erronkak islatzea.
- **Etorkizuneko ikuspegi propioa.** Diagnostikotik abiatuta, eskualde bakoitzak bere etorkizunaren ikuspegia formulatzen du. Ikuspegi hori ez da kanpotik ezartzen, baizik eta kolektiboki eraikitzen da, izan nahi duenaren adierazpen inspiratzaile gisa.
- **Ardatzen eta jarduera-ildoen hautaketa.** Ardatzak LGPen katalogotik hautatu behar badira ere, eskualde bakoitzak bere beharretara hobekien egokitzen direnak aukeratzen ditu. Gainera, jarduera-ildo propioak defini ditzake, hautatutako ardatzekin lerrokatuta badaude.
- **Egokitutako gobernantza.** Metodologiak gobernantza-egitura minimo bat ezartzen du, baina eskualde bakoitzak bere errealitatearen arabera osa dezake. Horrek parte-hartzea eta erantzukizun partekatua sustatzen ditu.

HAZIk aitortzen du eskualdeen autonomia ez dela erabatekoa. Lurralde-estrategia koherente bat mantentzeko beharrak baldintzatzen badu ere, eskualde bakoitzak bere bidea marraztu dezake. Autonomia hori funtsezkoa da LGPak dokumentu generikoak izan ez daitezen, baizik eta tresna bizia, erabilgarria eta eraldatzailea bihurtu daitezen.

4.2.2. Donostialde-Bidasoko LGPa: egitura orokorren eta tokiko identitatearen arteko oreka

Donostialde-Bidasoko LGPak argi erakusten du nola uztartzen diren esparru metodologiko baten aplikazioa eta lurralde-identitate propioaren adierazpena. Lehen begiradan, dokumentuak ezarritako egiturari zorrotz jarraitzen dio: fase zehatzak, adierazle estandarizatuak, jarduera-fitxa xehatuak eta eskualde guztiekin bat datozen hizkera teknikoa. Hala ere, irakurketa sakonago batek agerian uzten du oinarria lurraldearen errealitate zehatzak direla.

Hasierako diagnostikotik bertatik, dokumentuak deskribapen orokor batetik aldentzeko ahalegina egiten du. Besteak beste, gazteentzako etxebizitza faltaren arazoa, garraio publikoaren mugak, espazio komunitarioen biziberritze-beharra edo adinekoen premietara egokitutako azpiegituren egokitzapena identifikatzen dira. Aldi berean, indarguneak ere aitortzen dira: sare sozial aktiboak, gastronomiarekin lotutako landa-turismoaren potentziala eta eskola txikien eginkizun kohesionatzailea.

Beharrak eta aukerak, egitura bateratuaren arabera antolatutak izan arren, tokiko esperientziatik abiatuta formulatuta daude. Horrela, energia berriztagarrien sustapenak, saneamenduaren hobekuntzak, landa-eremukiko auzoen dinamizazioak edo nekazaritza-sektorean belaunaldi-erleboia bultzatzeak, esaterako, erronka globalen eskualde-mailako itzulpen eraginkorra erakusten dute.

Dokumentuak aipatzen du auzo-elkarteek, nekazariak eta udal-teknikariak parte hartu duten lan-mahaiak egon direla, lurraldearen ahotsa jasotzeko saiakera bat iradokiz. Hala ere, parte-hartze hori nola bideratu den eta erabaki estrategikoetan izan duen eragina ez da zehazten, eta horrek alderdi hori landu gabe uzten du. Parte-hartzea badago, baina haren kontakizuna lausoa da.

Adierazleei eta LGPen ardatzekin duten loturari dagokienez, dokumentuak zurruntasun puntu bat erakusten du. Ebaluazioa eta alderagarritasuna bermatzeko beharrezkoak badira ere, elementu horiek tokiko berrikuntza-gaitasuna mugatzen dute. Jarduera-fitxek, formatu estandarizatuaren ondorioz, zaildu egiten dute bereiztea ea ekintzak benetako hausnarketa lokal baten emaitza diren ala esparru komunera egokitzeko moldatu diren.

Donostialde-Bidasoko Plana ez da dokumentu generiko bat, baina ez du berezitasun osoa lortzen. Tarteko espazio batean kokatzen da: esparru orokorra ondo baliatzen du, baina tokiko identitatearen adierazpena indartzeko tartea badu oraindik. Ezarritako baldintzak betetzen ditu, baina urrats gehiago egin zitzakeen lurraldearen ahotsa argiago kontatuz eta egitura malgutuz, bizitza erreala hobeto islatzeko.

EAEko LGPen metodologiak behetik gorako (Bottom-up) ikuspegi parte-hartzailea aldarrikatzen badu ere, Donostialde-Bidasoko kasuan egitura diskurtsoak iradokitzen duena baino bertikalagoa da. Tentsio hori, arauaren eta praktikaren artekoa, ez da euskal testuinguruaren berezkoa; landa-garapenari buruzko Europako literaturan ere zabalki dokumentatua izan da (Navarro, Woods & Cejudo, 2016; Dax & Oedl Wieser, 201; Martín *et al.*, 2024).

Metodologia zehaztasunez diseinatuta dago: faseak, tresnak, adierazleak, printzipio zeharkakoak eta gobernantza-egiturak definitzen ditu. Zehaztasun horrek plangintza estrategiko instituzionalaren logikari erantzuten dio, koherentzia eta kalitate teknikoa bermatzeko. Baina, aldi berean, tokiko autonomia mugatu eta berrikuntza metodologiko edo narratiborako tartea murrizten du.

Donostialde-Bidasoko kasuak erakusten du tokiko errealitatera egokitzeko ahalegina badagoela. Diagnostikoa xehea da, beharrak ondo formulatuta daude eta jarduera-ildoek arazo errealak jorratzen dituzte. Eragileak eta parte-hartze espazioak

aipatzen dira. Hala ere, parte-hartze hori kontsulta-fase baten antz handiagoa du, sorkuntza partekatu batena baino.

Testuinguru honetan, tokiko ekarpena ez da desagertzen, baina sistema itxi baten barruan geratzen da. Eskualdeek aukera dute hautatzeko, lehentasunak ezartzeko eta egokitzeko, baina ez dute esparrua birdefinitzeko edo egitura alternatiboak proposatzeko aukerarik. EAEko LGP ereduaren egitura bertikal batean eraikita dago, egokitzapenerako tartea uzten duena, baina berrasmatzeko ez. Parte-hartzea badago, baina estutua. Eta dokumentuek lurralde-sentikortasuna erakusten badute ere, haien berezitasuna esparru komunaren logikari men eginez agertzen da.

LGPen kontakizun narratiboak tentsio bat agerian uzten du: esparru metodologiko ofizialaren eta haren ezarpen errealearen artekoa. Parte-hartze ikuspegia sustatzen bada ere, praktikan egitura teknokratikoagoa agertzen da. LGPen benetako dimentsio parte-hartzailea indartzeko, metodologia berrikusi eta malgutzea beharrezkoa litzateke, tokiko autonomia handiagoa ahalbidetuz eta parte-hartze deliberatibo eta eraldatzaileagoa sustatuz. Horrek ez du soilik tresnak eta prozesuak egokitzea eskatzen. Gobernantza partekatuaren kultura bat bultzatzea ere eskatzen du, non lurraldearen ahotsa garapen-estrategien diseinuan eta ezarpenean erabat integratzen den.

5. Emaizten eztabaida

Gizarte-zientzien esparruan, AA tresna indartsua bihurtu da datu-bolumen handiak aztertzeko, ereduak identifikatzeko eta hipotesiak sortzeko. Hala ere, haren erabilerak ezin du ordezkatu elkarrizketa kualitatiboek eskaintzen duten interpretazio-aherastasuna eta testuinguruaren ulermena. Elkarrizketek ez dute soilik ikerketa aberasten, baizik eta errealtate sozialaren ikuspegi etiko, kritiko eta ordezkagarriagoa bermatzen dute (Chubb, Cowling eta Reed, 2022).

Ikerketa honetan, LGPen elaborazio-prozesuak gidatu dituzten eragileekin, Euskal Autonomia Erkidegoko LGEetako gerenteeekin, lortutako emaitzak kontrastatzea erabaki dugu. Lehenik, banakako elkarrizketen bidez, eta ondoren, talde-dinamika batean. Haien ekarpenek aurretik egindako ondorioak zehaztu, baieztatu eta aberastu dituzte.

Elkarrizketak hasteko lehen helburua elkarrizketatuarekin konfiantzazko giro bat sortzea izan da, lehentasunezko gaiak modu ordenatuan jorratzeko, baina elkarrizketa atsegin eta informal baten barruan. Ikertzailea elkarrizketatu diren pertsonekin bi hamarkada baino gehiagoko lankidetzan ari da eta horrek prozesua errazten du.

Elkarrizketak lau bloke tematikotan egituratu dira, aurrez zehaztutako gidoi bati jarraituz eta modu independentean landuta. Talde-dinamikak antzeko egitura eduki du. Bloke horien inguruan antolatuta, banaka jasotako iritziak partekatu eta ikuspegi bateratua osatu da. Taldeko lanak emaitzak aberastu ditu, nahiz eta gehienbat banakako balorazioei ñabardurak gehitu. Hala ere, eztabaida kolektiboak etorkizunean elkarrekin jarduteko arloak identifikatzeko aukera eman du. Ikerketa

honen helburua hori ez bada ere, unibertsitatearen eta LGEen arteko lankidetzaz-ildo berriak zabaltzeko aukera irekitzen du.

Tokiko biztanleriaren parte-hartzearen inguruan

Elkarriketatu guztiek adierazi dute denbora-muga handiak izan zituztela beren eskualdeko planak prestatzeko. Epea hiru hilabetekoa izan da, eta tarte horretan dinamizazio-talde bat kontratatu, batzar bereziak antolatu eta emaitzak baliozkotu behar izan dituzte.

Eskualde bakoitzak parte-hartze eredua bere testuingurura egokitu zuen: talde-elkarriketak, gai nagusien inguruko tailerrak, deialdi irekiak edo parte-hartze prozesua martxan zegoen eskualdeko plan estrategiko baten barruan integratu. Zentzu horretan erabateko askatasuna izan dute.

Balorazio orokorrean, gerenteek harrera ona nabarmendu dute, batzuetan espero ez zutena, eta emaitzekin pozik agertu dira, egutegiaren mugak kontuan hartuta. Hala ere, kontsulta-prozesuak zabalagoa izan beharko zukeela aitortzen dute, bai parte-hartzaileen kopuruan, bai jorratutako gaietan. Parte-hartzeak ez duela une jakin bateko kontsulta hutsa izan behar, baizik eta epe ertain eta luzerako lankidetzaz baten abiapuntua.

LGPetan jasotako proposamenen pertzepzioa

Elkarriketatu guztien lehen erreakzioa bateratua izan zen: ez zuten proposamenetan ezustekorik aurkitu. Aurrez beste foro batzuetan adierazitako beharrak ziren, landa-eremuko arazo tradizionalak lotuak.

Hala ere, ikerketaren emaitzak haien pertzepzioekin alderatzean, berrikuntza esanguratsuak agertu dira, aurreko planekin alderatuta (guztiak parte hartu zuten 2015-2020 planaren elaborazioan). Hiru arlo nagusitan laburbil daitezke:

- **Eskaera berriak.** Lehen mailakoak ez ziren gai batzuek protagonismoa hartu dute. Belaunaldi-erleboia, adibidez, orain enplegu aktiboaren, prestakuntzaren eta etxebizitzarako sarbidearen bidez modu integratuean lantzen da. Adinekoen arretak eta gizarte-zerbitzuek ere indarra hartu dute. Halaber, trantsizio energetikoa (komunitate energetikoak eta autokontsumoa) eta elikadura jasangarria (agroekologia eta merkaturatze laburrak) agertzen dira. Beharrak antzekoak badira ere, ulertzeko eta erantzuteko modu berriak sortu dira.
- **Nabardura berriak.** Landa-garapeneraren kontzepzioan aldaketa sakona sumatzen da, balio etiko, inklusibo eta jasangarrietan oinarritua. Energia modu parte-hartzailean kudeatzen da, etxebizitza berrikuntza sozialaren espazio gisa ulertzen da, eta tokiko elikadura identitatearen eta jasangarritasunaren ardatz bihurtzen da. Herritarrek erabaki-prozesuetan parte-hartzea eskatzen dute, tokiko gobernantza eta lurralde-autonomiaren aldeko apustu argia eginez.

- **Jarduteko modu berriak.** Aurreko planekin alderatuta, oraingoek logika proaktiboagoa dute. Eskualdeek ez dituzte soilik gabeziak adierazten, dirulaguntzak eskatzeko, baizik eta galderak egiten dituzte: zertarako, nola kudeatu, nola funtzionatu, nola merkaturatu eta zein den ekintzen bide-agarritasuna. Plangintza helduagoa eta erantzukizun partekatuak hartzeko borondatea sumatzen dira.

Hasierako jarraitutasun-inpresioa gorabehera, azterketa eta eztabaidaren ondoren, elkarrizketatu guztiek aldaketa esanguratsuak aitortu dituzte adierazitako eskaeretan, eta neurri handi batean baieztatu dituzte emaitzen atalean jasotako datuak.

LGPen elaborazioan erabilitako metodologiaren inguruan

Gerenteek aitortzen dute eskualdeek tarte bat izan dutela edukiak egokitzeko eta lehentasunak ezartzeko, baina eredia bera eraldatzeko edo egitura alternatiboak proposatzeko ez dute izan. EAEko LGPen diseinuak logika hierarkiko bati erantzuten dio: forma-mailako egokitzapenak ahalbidetzen ditu, baina ez edukiaren funtsezko aldaketarik. Dokumentuek tokiko berezitasunekiko sentikortasuna erakusten badute ere, hauek egitura itxi baten menpe daude, eta egitura horrek bere arauak ezartzen ditu.

Hala ere, esparru horrek ez du oztopo gaindiezinik izan planak egiteko orduan. Ardatzak eta azpiardatzak aurrez zehaztuta zeuden, eta lanaren zati handiena horien artean lehentasunak ezartzea izan da. Hala ere, jarduera-ildoak nahikoa zabalak zirenez, eskualdeetako eskaera guztiak haietan kokatzeko modukoak ziren. Gerenteen kezka nagusiak bestelakoak izan dira:

- **LGPen izaera kontsultiboa.** Elkarrizketatu gehienek LGPak kontsultarako dokumentuak direla uste dute, baina ez benetako ekintza-planak. Ez diete erantzuten benetan kezkatzen dituzten galderei, hala nola proposatutako neurrien ezarpen eraginkorrari.
- **LGPekiko deskonexioa.** Ardatz eta azpiardatz bateratuak justifikatzeko argudioa LGPetan identifikatutako beharretan oinarritzen da. Hala ere, dokumentu horiek oraindik ez daude osatuta, eta horrek ziurgabetasuna eta koherentzia falta sortzen du prozesuan.
- **Eraginkortasunarekiko zalantzak.** Lanaren erabilgarritasun errealekiko kezka zabala dago. Elkarrizketatuek LGPen funtzionaltasunari buruz zalantza larriak adierazi dituzte, eskualde-mailan jasotako ideietatik eta lurralde bakoitzak bere baliabideekin mobilizatu dezakeenetik harago.

Elkarrizketatu batzuek ikuspegi alternatibo bat proposatzen dute: eskualde bakoitzak bere plan estrategikoa modu autonomoan garatzea, egutegi malguago batekin eta tokiko parte-hartzeari irekitako prozesu batekin. Plan horiek amaitutakoan, beste eskualde eta erakundeekin partekatu eta koordinazio bateratua egin liteke, beharrei modu kolektiboan erantzuteko.

LGL eta landa-garapeneko esku-hartze ereduaren inguruan

Elkarriketatuek Euskal Autonomia Erkidegoan onartutako landa-garapeneko esparru berriarekiko mesfidantza zabala adierazi dute. LGEei esleितutako rolaren aldaketa da arrazoi nagusia. Landa Garapenerako Lege berriak ezartzen du LGPeK izan behar dutela LGPetan definitutako sektore-helburuak eta lehentasunezko ardatzak gauzatzeko tresna. Baina horien ezarpena HAZI Fundazioaren Kudeaketa Zerbitzu berriak hartuko du bere gain, eta LGEak zerbitzu horretan integratu beharko dira.

Eredu berri honek LGEen protagonismoa nabarmen murrizten du, LGPetan aurrez erabakitako jarduera-ildoak aplikatzeko borondatezko hitzarmenetara mugatuz. Halaber, tokiko erakundeen rola zalantzan jartzen da, historikoki egitura horien parte izan direnak. HAZIren bidezko kudeaketa zentralizatuak goitik beherako ikuspegi bat iradokitzen du, tokiko biztanleriaren ahalduztzera baino gehiago, jarraibideak betetzera bideratua.

Testuinguru horretan, tokiko proposamenen bideragarritasunarekiko mesfidantza nabaria da. Teorian, LGPeK biztanleriaren eskaerei erantzuteko tresna izan behar badute ere, elkarriketatuek praktikan kontrakoa gertatzen dela maiz adierazi dute: instituzioek jarduera-ildoak inposatzen dituzte, planetan jasotakoarekin bat egin ala ez. Kontradikzio horren adibide zehatzak aipatzen dira: belaunaldi-erleleboa bermatzeko neurriak edo nekazaritza-probaguneen sorrera sektore-erakundeek baztertu dituzte.

Ondorioz, elkarriketatuek LGPen erabilgarritasuna barnekoa dela uste dute, ez kanpoko. Hau da, planek eskualde barruko lana antolatzeke eta tokiko eskaerei erantzuteke balio dute, batez ere udal-erakundeekin lankidetzan, baina ez dute espero sektore-erakundeen babes esanguratsurik.

Talde-dinamikatik ondorioztatzen denez, LGEen indarra beren kideen konpromisoan datza: tokiko erakundeak, landa-udalerriak eta eragile aktiboak. Eragin handiena izan duten proiektuak aliantza horietatik sortu dira, eta horietan oinarritu behar da etorkizuneko landa-garapena.

6. Ondorioak

Lan honek Euskal Autonomia Erkidegoko LGPen azterketa jorratu du, 2022an onartutako LGL berriaren itzalpean. Ikerketaren abiapuntua diagnostiko ugari partekatzen duten baieztapen bat da: euskal landa-eremua —Estatuko beste eskualde batzuek bezain despopulazio bortitza jasan ez badu ere— funtzionaltasuna, kohesioa eta autonomia galtzen ari da. LGL egoera horri erantzuteke sortu da, arau-esparru berri bat proposatuz, teknikoagoa, estrategikoagoa eta lurralde-kohesio helburuekin lerokatuagoa. Testuinguru horretan, LGPaK bihurtu dira lurralde-plangintzako tresna nagusi, eta haien azterketak aukera ematen du eredu berriaren tentsioak, aurrerapenak eta kontraesanak argi ikusteko.

Ikerketak hiru ikuspegi osagarri uztartu ditu:

1. 18 Eskualde Programen azterketa sistematikoa, ereduaren berdintasunak, lehentasun partekatuak eta lurralde-desberdintasun esanguratsuak identifikatzeko.
2. Adimen artifizialaren erabilera, testu-bolumen handiak prozesatzeko, gai nagusien maiztasunak identifikatzeko eta joerak sintetizatzeko, betiere ikertzailearen berrikuspenarekin.
3. Elkarrizketa eta lan-dinamikak LGEetako arduradunekin, ikuspegi kualitatibo ezinbestekoa emanez, diskurtso instituzionalak tokiko pertzepzioekin kontrastatzeko eta datuen interpretazioa aberasteko.

Ikuspegi metodologiko hau ohikoa da landa-garapenaren arloan, non datu kuantitatiboek ez duten beti prozesu sozialen konplexutasuna islatzen, eta non tokiko eragileen ahotsa funtsezkoa den politika publikoen arrakasta eta mugak ulertzeko.

Adimen artifizialaren erabilera oinarritzeko tresna da gizarte-ikerketarako, baina zaindu beharrekoa, desbideratzeak sor baititzake, ikerketan zehar egiaztatu den bezala. Ikertzailearen analisi kritikoa eta, gure kasuan, elkarrizketen bidezko kontrastea dira ezagutza zorrotz eta sendo bat eraikitze bermea. Ikerketaren ondorio nagusiak jarraian jasotzen dira:

- LGPetan jasotako eskaeren edukian izandako bilakaera. Aurreko plangintzetan gabeziak estaltzera bideratutako eskaerak nagusi baziren ere, gaur egungo planek landa-errealitate proposatzaileago, estrategikoago eta etorkizunera begirakoago bat erakusten dute.
- Kontzeptu berriak ardatz nagusi gisa agertzen dira: belaunaldi-erleboia, trantsizio energetikoa, elikadura-burujabetza, berrikuntza soziala eta plangintza estrategikoa. Eraldaketa honek ez du esan nahi eskaera tradizionalak desagertu direnik, baizik eta ikuspegi zabalago, integratuago eta anbiziotsuago batean kokatzen direla.
- Parte-hartzeari eta behetik gorako ikuspegi bati buruzko diskurtso ofiziala gorabehera, azterketak erakusten du egitura metodologikoa hierarkikoagoa eta teknokratikoagoa dela. Eskualdeek edukiak egokitu eta lehentasunak ezar ditzakete, baina ez dute esparrua birdefinitzeko edo egitura alternatiboak proposatzeko aukerarik. Parte-hartzea badago, baina mugatua.

Elkarrizketek tentsio hori berresten dute. LGEetako arduradunek balorazio positiboa egiten dute plangintza-esfortzuari buruz, baina zalantzak adierazten dituzte erabilgarritasun praktikoari eta erakundeek tokiko proposamenak benetan integratzeko duten borondateari buruz. Gobernantza zentralizatuago baterako joerarekiko mesfidantza nabaria da. Hala ere, egindako lana barne-antolaketa tresna gisa baloratzen dute, tokiko sareak indartzeko eta lurraldearen eskaerak ikusgai egiteko.

Ikuspegi praktikotik, ikerketak gomendio zehatzak eskaintzen ditu EAEko landa-plangintza hobetzeko. Nabarmendu beharrekoen artean daude: parte-hartze deliberatiboa indartzea, metodologia-esparruak malgutzea tokiko berrikuntza handiagoa ahalbidetzeko, eta LGEen balio estrategikoa aitortzea, lurralde-lankidetzarako eta bitartekaritzarako gune gisa.

EAEko landa-garapena politika konpentsatzaile izateari utzi eta politika eraldatzaile bihurtu behar da. Norabide-aldaketa horrek ez du soilik esku-hartzeen eraginkortasuna hobetuko, baizik eta autoestimua, lurralde-identitatea eta erabaki demokratikoen zilegitasuna ere indartuko ditu. Landa-eremua ez da garatu beharreko espazio bat, baizik eta herrialde osoaren garapenean aktiboki parte hartzen duen eragile bat.

7. Aipatutako bibliografia

- Alberdi, J.C. (2004). Colaboración interinstitucional en el desarrollo rural: Aciertos y fracasos de la ley de desarrollo rural del País Vasco. *Boletín de la Asociación de Geógrafos Españoles*, (38), 131-151. <https://dialnet.unirioja.es/descarga/articulo/1079127.pdf>
- Alberdi, J.C. (2010). Experiencia, pragmatismo y líneas de actuación comunes, bases del nuevo modelo de desarrollo rural del País Vasco. *Estudios Geográficos*, 71(268), 7-38. <https://doi.org/10.3989/estgeogr.0433>
- Alberdi, J.C. (2016). El papel de los Grupos de Acción Local en la construcción de una gobernanza territorial: el caso del País Vasco. *Lurralde: Investigación y espacio*, (39), 11-38. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=5761234>
- Alberdi, J.C. (2022). Empoderamiento de los Grupos de Acción Local como modo de afrontar los retos del medio rural: El ejemplo de Gipuzkoa. *Lurralde: Investigación y espacio*, (45), 269-298. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=9722955>
- Alberdi, J.C. (2023). Hacia un mayor intervencionismo y direccionalidad en las políticas de desarrollo rural: El ejemplo vasco (España). *Ager: Revista de Estudios sobre Despoblación y Desarrollo Rural*, (37), 5—38. <https://doi.org/10.4422/ager.2023.01>
- Askasibar, M. eta Flores, A. (2013): Valores paisajísticos del medio rural atlántico: presente y futuro. Conclusiones generales del proyecto. Paisaia SL. Astigarraga (Gipuzkoa) <http://issuu.com/paisaia/stacks/89a88cb5d2a243d1ae23e98bb177a6ab>
- Bello Paredes, S.A. (2023). La despoblación en España: Balance de las políticas públicas implantadas y propuestas de futuro. *Revista De Estudios De La Administración Local Y Autonómica*, (19), 125-147. <https://doi.org/10.24965/reala.11167>
- Bonilla, M., García, L., & Pérez, A. (2023). Participación ciudadana y gobernanza local en zonas rurales. *Revista de Estudios Rurales*, 45(2), 123-145.
- Camarero, L., & Oliva, J. (2019). Thinking in rural gap: Mobility and social inequalities. *Palgrave Communications*, 5, Article 95. <https://doi.org/10.1057/s41599-019-0220-z>
- Chubb, J., Cowling, R.M., & Reed, M.S. (2022). Social learning for sustainability in rural development. *Journal of Rural Studies*, 89, 1-10. <https://doi.org/10.1016/j.jrurstud.2021.11.005>
- Dax, T., & Oedl-Wieser, T. (2016). Rural innovation activities as a means for changing development perspectives. An assessment of more than two decades of promoting LEADER initiatives across the European Union. *Studies in Agricultural Economics*, 118(1), 30-37. <https://doi.org/10.7896/j.1535>
- Esparcia, J. (2014). Innovation and networks in rural areas: An analysis from European innovative projects. *Journal of Rural Studies*, 34, 1-14. <https://doi.org/10.1016/j.jrurstud.2013.12.004>

- Esparcia, J. (2020). Participación y gobernanza en el medio rural: ¿una oportunidad perdida? *Cuadernos de Desarrollo Rural*, 17(86), 45-67. <https://doi.org/10.11144/Javeriana.cdr17-86.pgm>
- Eusko Jaurlaritz. Elikadura, Arrantza eta Landa Garapen Saila (2015). Landa Garapenerako Eskualdeetako Programak 2015-2020. <https://www.EAE.eus/informazioa/eskualdeko-landa-garapeneko-programak-2015-2020/web01-a2lanits/eu/>
- Eusko Jaurlaritz. Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila. (2021). Landa Garapenaren Legearen aurreproiektuaren aurretiazko onarpena emateko Ekonomiaren Garapen eta Azpiegiturarako sailburuaren agindua. https://www.EAE.eus/informacion_publica/orden-de-la-consejera-de-desarrollo-economico-e-infraestructuras-de-aprobacion-previa-del-anteproyecto-de-ley-de-desarrollo-rural/web01-tramite/es/
- Freidenberg, F. (2000). El desarrollo rural ante la nueva ruralidad: Algunos aportes desde los métodos cualitativos. *Redalyc: Revista de Ciencias Sociales*, (42), 271-289. <https://www.redalyc.org/articulo.oa?id=62304207>
- Galdós, R. eta Ruiz, E. (2016). Valoración del desarrollo rural en el País Vasco en los últimos 30 años (1986-2015). In Á.R. Ruiz, M.A. Serrano de la Cruz eta J. Plaza (argtz.), *Treinta años de Política Agraria Común en España: Agricultura y multifuncionalidad en el contexto de la nueva ruralidad* (351-365. or.). <https://www.age-geografia.es/site/wp-content/uploads/2020/01/Dialnet-TreintaAnosDePoliticaAgrariaComunEnEspana-660685.pdf> (16/03/2022)
- HAZI (2024). *Metodología de elaboración, ejecución y seguimiento de los programas comarcales de desarrollo rural de Euskadi* [argitaragabea].
- Izquierdo Ramírez, J. (2007). El desarrollo rural en el País Vasco: Una visión desde el enfoque LEADER. *Revista de Estudios Vascos*, 52, 89-112.
- Martín, Á., Galindo, S., Gómez, I., Arcajo, N., & García, C.(2024). Desafíos de la metodología LEADER para cerrar las fracturas rural-urbano en Castilla y León. *Gaceta de Antropología*, 40(2). <http://www.gazeta-antropologia.es/?p=5915>
- Meneko (2021). Preocupaciones y opiniones de las asociaciones y entidades rurales en relación con el anteproyecto de ley de desarrollo rural. Berriz, Bizkaia. 2021eko iraila.
- Moreno Espinosa, M., García, R., & Landa, I. (2024). Metodologías mixtas y validación participativa en estudios rurales. *Revista de Investigación Social*, 29(1), 55-78.
- Navarro, F.A., Woods, M., & Cejudo, E. (2016). The LEADER Initiative has been a victim of its own success. The decline of the bottom-up approach in rural development programmes. The cases of Wales and Andalusia. *Sociologia Ruralis*, 56(2), 270-288. <https://doi.org/10.1111/soru.12079>
- Olarieta, J.R. (2017). Gobernanza rural y sostenibilidad: Retos para el siglo XXI. *Revista de Geografía*, 49(2), 201-220.
- Schejtman, A., & Berdegue, J.A. (2016). Enfoque territorial y análisis dinámico de la ruralidad: Alcances y desafíos. CEPAL. <https://repositorio.cepal.org/server/api/core/bitstreams/8a34171e-fe47-468f-afff-3404b329ad1f/content>